Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 12
Nork aurkeztu du:
Sociedad Financiera y Minera, S.A.
Aurkezpen data: 2021/12/16

Sugerencia Nº: 12
Presentada por:
Sociedad Financiera y Minera, S.A.
Fecha de presentación: 16/12/2021

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Sociedad Financiera y Minera SAk eremu funtzionalean garatutako jardueraren aurrekariak azaldu dira, eta hainbat dokumentu aurkeztu: Larrako eta Goriko meatze-ustiategien luzapena onartzen dion ebazpena, Larrako meatze-ustiategiaren 2C aldea aldatzearen ingurumen-inpaktuaren adierazpena, Larrako meatze-emakidaren 2C aldean zabaldutako eremuaren mugen planoa, Goriko meatze-emakidaren 2M aldearen mugak jasotzen dituen planoa, PTPBMren Aurrerapenaren informazio publikoaren izapidean egindako iradokizunei Foru Aldundiak emandako erantzuna, eta PTPBMren Aurrerapenari egindako iradokizunak.

2. Adierazi denez, 2C aldea handitzeko izapideak egin dira, aldaketa horrek dakartzan aldaketak argitu dira, eta Larrako eta Goriko meatze-emakiden barruan baimendutako 2C eta 2M aldeen planoa erantsi da.

   Gaineratu denez, ingurumen-azterketa estrategikoaren (IAE) 31. irudian eta IAEko Azpiegituren eta lurzoruaren jabetza 02 planoan (meatzaritza-eskubideak eta mendiak), meatze-jarduera mugatzen duen bilbea Arrigorriagako udal-mugartean baino ez da sartu; ez dago, baina, bi ustiategiek Bilboko udalerrian hartzen duten lur-azalera.

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. Se exponen los antecedentes de la actividad desarrollada por Sociedad Financiera y Minera, S.A. en el área funcional y se aportan una serie de documentos: la resolución que le concede la prórroga de las explotaciones mineras Larrako y Goriko, la Declaración de Impacto Ambiental de la modificación del frente 2C de la explotación minera Larrako, el plano de los límites del área ampliada en el frente 2C de la concesión minera Larrako, el plano conteniendo los límites del frente 2M de la concesión minera Goriko, la contestación de Diputación Foral a las sugerencias realizadas en trámite de información pública del Avance del PTPBM, y las sugerencias al Avance del PTPBM.

2. Se señala que se ha tramitado la ampliación del frente 2C, se aclara cuáles son las modificaciones que conlleva dicha modificación y se adjunta el plano de los frentes 2C y 2M autorizados dentro de las concesiones mineras Larrako y Goriko.

   Además, se dice que en la figura 31 del Estudio Ambiental Estratégico (EAE) y en el plano 0.2 Infraestructuras y propiedad del suelo (derechos mineros y montes,) también del EAE, la trama que delimita la actividad minera solo se incluye en el término municipal de Arrigorriaga, habiéndose omitido la superficie de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: N8XI-QV0A-DYSD-0IFS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

terreno que ocupan ambas explotaciones en el municipio de Bilbao.

3. Adierazi da *Ingurune fisikoaren antolamendua. Antolamendu kategoriak* 01. planoan balio estrategiko handiko lurzoruak agertzen direla ustiategi-eremutik kanpo, baina hurbil. Eskatu dute argitu diezaietela hurbiltasun horrek garatzen ari diren jarduerari eragiten dion, eta, jarduera mugatu dezakeen efekturen bat badago, balio estrategiko handiko lurzoru horiek ken daitezela.

3. Se indica que en el plano *01. Ordenación del medio físico. Categorías de ordenación* aparecen suelos de Alto Valor Estratégico fuera del área de la explotación, pero en sus proximidades. Solicitan que se les informe si dicha proximidad afecta a la actividad que vienen desarrollando, y, en caso de existir algún efecto que pueda limitar la actividad, solicitan la eliminación de dichos suelos de Alto Valor Estratégico.

4. Adierazi da EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) aplikatu behar direla, eta aplikazio-arauen II. eranskineko 1.b.2.c. apartatua aipatzen da, non esaten den hirigintza-plangintzak erauzketa-jarduerek eragindako lurzoruaren mugaketa jaso beharko duela.

   LAGen atal horretan oinarrituta, LPPan erauzketa-jarduerarako egokiak diren lurzoruen kategorizazioa eta sailkapena sartzeko eskatzen da, bai indarrean dauden baimenen eraginpean daudenak, bai etorkizuneko garapenetan aurreikusitakoak.

4. Se señala que son de aplicación las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) de la CAPV y se menciona el apartado 1.b.2.c. del Anexo II a las Normas de Aplicación donde se dice "*el planeamiento urbanístico deberá incorporar la delimitación del suelo afectado por la realización de actividades extractivas*".

   Basándose en dicho apartado de las DOT, se exige la incorporación en el PTP de la categorización y clasificación de los suelos aptos para la actividad extractiva, tanto los afectados por las autorizaciones vigentes como los previstos en futuros desarrollos.

5. Aurreko atalen laburpena egin da.

5. Se realiza el resumen de los apartados anteriores.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Emandako informazioa eskertu da, eta adierazi da ezen, berrikuspenaren araudiaren 25. artikuluan zein dokumentazio grafikoan ezarritakoarekin bat, ingurumen-hobekuntzaren kategoria indarrean dagoen emakida iraungitzen denean edo berritzen ez denean aplikatuko dela jardunean ez dauden harrobietan eta jardunean daudenetan.

2. Ingurumen-azterketa estrategikoaren 0.2 planoan (*Azpiegiturak eta lurzoruaren jabetza —meatze-eskubideak eta mendiak—*) argi eta garbi ikusten da ustiategiak Arrigorriagan eta Bilbon grafiatu direla (udal-mugak gailendu egin dira, magenta koloreko puntu-lerro batekin, hobeto nabarmentzeko). Izan ere, ustiategien mugak bat datoz iradokizunak 3. eta 7. eranskinetan adierazitako mugekin.

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. Se agradece la información aportada, y se señala que, tanto en el artículo 25 de la normativa de la revisión como en la documentación gráfica, ya se indica que la categoría de Mejora Ambiental se aplicará en las canteras inactivas, así como en las canteras activas una vez se extinga, o no se renueve, la concesión vigente.

2. En el plano *0.2 Infraestructuras y propiedad del suelo (derechos mineros y montes)* del Estudio Ambiental Estratégico se ve claramente que las explotaciones se han grafiado tanto en el municipio de Arrigorriaga como en el de Bilbao (se han regruesado los límites municipales con una línea a puntos en color magenta para su mejor percepción). De hecho, los límites de las explotaciones coinciden con los límites que aporta la sugerencia en sus anexos Documento nº 3 y Documento nº 7.



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: N8XI-QV0A-DYSD-0IFS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus




Ingurumen-Azterketa Estrategikoko *0.2 Azpiegiturak eta lurzoruaren jabetza (meatze-eskubideak eta mendiak)* planoaren zatia
Extracto del plano *0.2 Infraestructuras y propiedad del suelo (derechos mineros y montes)* del Estudio Ambiental Estratégico




Ingurumen-Azterketa Estrategikoko 31. Irudia
Figura 31 del Estudio Ambiental Estratégico




Sociedad Financiera y Minera S.A.k aurkeztutako 3. Dokumentuaren zatia
Extracto del *Documento nº 3* aportado por Sociedad Financiera y Minera, S.A.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: N8XI-QV0A-DYSD-0IFS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Balio estrategiko agrologiko handiko lurzoruen hurbiltasunak ez du zertan ukitu Sociedad Financiera y Minera SAk (Cementos Rezola) ustiapen-eremuan egiten duen jarduera, eremu desberdinak baitira. Informazio hori Nekazaritza eta Basozaintzako LPStik dator, eta bada datu bat LPPak aldatu edo ezabatu ezin duena.

4. Aurreko 2. atalean adierazi den bezala, LPPren ingurumen-azterketa estrategikoak meatze-emakiden mugak barne sartu ditu (handitzeak barne).

   Gainerakoan, LAGek eta LPPren berrikuspen-arauen 25. artikuluak jasotzen duten bezala, hirigintza-plangintzak (udalarena) jasoko du erauzketa-jarduerek ukitutako lurzoruaren mugaketa.

5. Aurreko ataletan erantzun dira.

3. La proximidad de los suelos de "alto valor estratégico" agrológico no tiene por qué afectar a la actividad que viene desarrollando Sociedad Financiera y Minera, S.A. (Cementos Rezola) en el área de explotación, ya que son ámbitos distintos. Esta información proviene del PTS Agroforestal y se trata de un dato ya existente que no está en manos del PTP modificar o eliminar.

4. Como ya se ha señalado en el apartado 2 anterior, el Estudio Ambiental Estratégico del PTP ha incorporado los límites de las concesiones mineras (incluidas las ampliaciones).

   Por lo demás, tal y como recogen las DOT, y el artículo 25 de las normas de la revisión del PTP, es el planeamiento urbanístico (municipal) el que incorporará la delimitación del suelo afectado por la realización de actividades extractivas.

5. Quedan contestados en los apartados anteriores.

**LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
**LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL**

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: N8XI-QV0A-DYSD-0IFS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus